



## TREBATU elkartea

Laborantza herrikoian formatzeko eta trebatzeko tresna

Haize-Berri 64 120 IZURA-AZME

Code APE:0145Z - Siret: 823 273 404 00017 -

N° TVA intracommunautaire : FR 16 823 273 404

### Hazkuntzan trebatzeko gunea, Irulegin

– *Trebatu instalazioa  
prestatzeko* –



#### ■ TREBATU elkartea eta « Laborantzako Trebatze Gunea »

TREBATU elkarteak, « Laborantzako Trebatze Gunea » kudeatzen du ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldean. Elkartea ingurune desberdineko 10 egiturek osatzen dute :

- laborantza mundukoek (AFI, AFOG, APFPB, BLE, EHLG, Lurzaindia)
- laborantza formakuntzakoak (AGROCAMPUS 64)
- ekonomia sozial eraldatzailekoak (CAE Interstices)
- kontsumitzaileen ordezkariak (Inter AMAP Pays Basque)
- Euskal Hirigune Elkargoa.

Trebatze gunea, egiazko baldintzetan laborantzaz entseatu nahi duten pertsoner zuzendua da, beren instalazio proiektua baieztatzeko helburuarekin.

Elkarteak proiektu eramaileari honakoak proposatzen ditu :

« Inkubagailu » funtzioa	« Laguntza eta segipen » funtzioa
Aktibitatea juridiko, fiskalki eta kontableki bere gain hartzen du Trebatuk ; horretarako proiektu eramailearekin CAPE ( <i>Enpresa proiektua sustengatzeko kontratua</i> ) kontratua izenpetzen da (urte bateko kontratua bi aldiz arraberri daitekeena).	Trebatzearen lorpena bermatzeko eta instalazio proiektua prestatzeko: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa kudeaketan laguntza,</li> <li>- Segipen humanoa,</li> <li>- Hilabetero hitzorduak,</li> <li>- Segipen tekniko eta formakuntza kolektiboak (proiektu eramaileen arteko trukaketekin) Trebatuaren kide diren egituren partetik.</li> </ul>
« Mintegi » funtzioa	« Animazio eta koordinazio» funtzioa
Trebagune ekipatu bat bere esku jartzen da (lurrak, lan tresnak).	Dispositibo osoa kudeatzen du Trebatuk: lurraldeko partaideekin eta administrazioarekin lotura, barne eta kanpo komunikazioa.

Horrez gain, proiektu eramaileak beharko du:

- « laborari zurrak » bat izendatu, kontseiluak emanen dizkiona eta bere hautu estrategikoetan lagunduko duena,
- « lekuko sustengu talde » bat osatu, eskualdean sare bat osatzen lagun dezaten.

▪ **Etxaldea - Trebagunea**

**Kokapena:** Irulegi (*etxaldea hitzordu bat finkatuz baizik ez daiteke bisita*)

**Eremuak :** 17,08 ha

Pentzeak: 5,87 ha / Larre zerratua : 4,76 ha / Larreak : 4,11 ha / Oihana : 2,34 ha / bortura joateko posibilitatea



**Bastimenduak eta ekipamenduak:**

- Arditegia, deizteko gela, transformatze gela eta gazitegia (468 m<sup>2</sup>)
- Borda eta aterbea (280 m<sup>2</sup>)
- Bortutik hurbil den arditegia Oilarandoin (190 m<sup>2</sup>)

**Ekoizpen mota:** Ardi esnedun edo ahuntz hazkuntzarako trebagune egokia. Xerriak ere ezartzeko aukera bada.

**Kabala tropa :** proiektu eramaileak ekarri beharko du. Trebatuk laguntzen ahalko du kabalen atzemaiten eta finantzamenduak aurkitzen.

- Trebagunea pertsona batentzat egokia da.
- Trebatzeak gehienik 3 urte irauten du.

Les conditions d'accès	Egin beharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Laborantzako diploma (BPREA, BTS edo beste) hautatu ekoizpenean eta esperientzia praktiko minimo bat</li> <li>➤ Langabezia edo sozial laguntzak ukan, edo lanaldi partzialean izan, CAPE kontratuaren iraupen osoan</li> <li>➤ Aktibitate hasieran aitzinatu behar diren gastuak estaltzeko diru zama ukan. Trebatuk finantzamenduak xerkatzen laguntzen ahalko du.</li> <li>➤ Lurraldean laborantzan instalatzeko xedea ukan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hautagaitza txostena* osatu eta igorri berantetik <b>irailaren 15eko</b> *(txostena telekargatzeko : <a href="http://www.renetat.fr/trebatu">www.renetat.fr/trebatu</a> / <a href="http://www.arrapitz.eus/trebatu">www.arrapitz.eus/trebatu</a> )</li> <li>➤ Proiektua, beharrak eta egin beharrak zehazteko aitzin elkarrizketa bat</li> <li>➤ TREBATU elkarteko kidez osatutako batzorde baten aitzinean proiektua aurkeztu</li> <li>➤ CAPE kontratuaren izenpedura</li> <li>➤ Trebatzearen abiatzea : 2019 ko larrazkenean edo neguan</li> </ul>

Xehetasun gehiagorentzat trebatzeari buruz edo etxaldea bisitatzeko, Trebaturekin harremanetan sar zaitezte (06.49.43.49.42 eta [trebatu@outlook.com](mailto:trebatu@outlook.com))

**INFORMAZIO BILKURA KOLEKTIBOIA :**  
irailaren 9an astelehenez 14:30, Elizondonia gelan (elizaren parean) Baigorriin

**HAUTAGAITZA TXOSTENAK IRAILAREN 15eko IGORRI BEHAR DIRA,**  
**TREBATU** elkarteko lehendakari jaunari zuzenduz, ondoko helbideetara :  
« TREBATU elkartea - Haize Berri - 64120 IZURA-AZME » eta [trebatu@outlook.com](mailto:trebatu@outlook.com)